EUSKADIKO
ORKESTRA

# 2010-2011

**Euskadiko Orkestra Sinfonikoa**
Orquesta Sinfónica de Euskadi

Bilbao **Donostia-San Sebastián** Vitoria-Gasteiz Pamplona-Iruñea

urriak / octubre **28** urriak / octubre **29**

**20:00 h.**

Conciertos nº 2420-2421

SAN SEBASTIAN
DONOSTIA 2016

Eusko Jaurlaritzako herri-baltzua
Sociedad Pública del Gobierno Vasco

EUSKADIKO ORKESTRA

# Gaurko kontzertua
## El concierto de hoy

BIZITZA ZATIAK. Zhdanov “formalismo burgesaren” kontrako kanpainan buru-belarri ari zela konposatu eta sobietar erregimenak ia zortzi urtez debekatuta eduki zuen Shostakovitch-en biolinerako lehen kontzertuak —bere generoan XX. mendeko erreferentzia-obretako bat— bikain laburbiltzen du sortu zen garaian nagusi zen susmo- eta mehatxu-giroa bere ingerada labirintikoetan. Osagai autobiografikoa agerian geratzen da, halaber, Kalinnikov errusiarraren partitura ospetsuan. Obra horren andantea egileak begirik bildu ezinik emandako gau batean sortu zuen, “gaueko isiltasuna eta bakardadea entzunez”.

FRAGMENTOS DE VIDA. Compuesto en plena campaña de Zhdanov contra el “formalismo burgués” y prohibido por el régimen soviético durante cerca de ocho años, el primer concierto para violín de Shostakovitch -una de las obras referenciales del siglo XX en su género- resume en sus contornos laberínticos el clima de sospecha y de amenaza en el que vio la luz. El componente autobiográfico aflora asimismo en la más célebre partitura del también ruso Kalinnikov, cuyo andante surgiría durante una noche de insomnio, “escuchando el silencio y la soledad nocturna”.

Paper birziklatua / papel reciclado

Hemen jarrai ahal izango diguzu / Síguenos en:

facebook flickr YouTube

Y suscríbete al nuevo Euskor digital en

www.euskadikoorkestra.es

webgunean izena eman **Euskor digital** berrian

Testuak / Textos:
**Juan Manuel Viana**

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
Andrés Orozco-Estrada, zuzendari titularra

# Egitaraua / Programa

1

**Dmitri Shostakovitch** **(1906-1975)**
Concierto para violín y orquesta nº1 en la menor, opus 77 [39']

I. Nocturne
II. Scherzo
III. Passacaglia
IV. Burlesca

2

**Vasily Kalinnikov** **(1866-1901)**
Sinfonía nº1 en sol menor [35']

I. Allegro moderato
II. Andante commodamente
III. Scherzo: Allegro non troppo
IV. Finale: Allegro moderato

Lorenz Nasturica Herschcowici
kontzertinoa / concertino

## Andrey Boreyko
zuzendaria / directora

## Julian Rachlin
biolina / violín

## Euskadiko Orkestra
## Orquesta de Euskadi

# I.

# Concierto para violín y orquesta nº 1 en la menor, opus 77

**Dmitri Shostakovitch -** San Petersburgo, 25 de septiembre de 1906 – Moscú, 9 de agosto de 1975

Shostakovitch-ek biolinerako bere bi kontzertuetan lehena 1947ko uztailaren 21a eta 1948ko martxoaren 24a bitartean konposatu zuen; hau da, Andrei Jdanov Stalin-en kultura komisarioak "formalismo burgesaren" aurka buruturiko kanpaina bizi bizirik zela. Shostakovitchen adiskide eta ezin konta ahala gauetan ganbera musika interpretatzerakoan lagun izandako David Oistrakh-entzat izango zen partitura hau idaztearen ideia biak elkarrekin 1947ko Pragako Udaberria jaialdian aritu eta gutxira sortu zen. Baina sobietar burokraten presio ideologikoek eta egile honen inguruko susmo eta meatxu giroak, 1936an *Lady Macbeth Mzensk distritoan* estreinatu ostean bizi izandakoaren pareko giroak, alegia, 1955.eko bukaerara arte atzeratu zuten obraren estreinaldia.

1947ko udazkenean, kontzertuan lanean ari zela, Shostakovitch-ek Urriko Iraultzaren hogeita hamargarren urteurrena ospatzeko idatzi berri zuen kantata abertzalea (egun ahaztutako *Aberriaren olerkia, op. 74*) errefusatua izan zela jakin zuen. Gertakari kezkagarri hark hasiera eman zion hurrengo urtearen hasieran Jdanovek gauzatutako beldurrarazte eta errepresio kanpainari, Shostakovitch, Prokofiev, Miaskovsky eta Khachaturian, garaiko konpositore gailenetariko lau bakarrik aipatzearren, "perbertsio formalistak eta sobietar herriari arrotzak zitzaizkion joera antidemokratikoak" leporatuz kondenatuak izan zirenean. Gaitzespenak obra instrumental abstrakto handiei zuzentzen ziren bereziki, Alderdiak kontrolatzeko eta, behar

El primero de los dos conciertos para violín de Shostakovitch fue compuesto entre el 21 de julio de 1947 y el 24 de marzo de 1948; es decir, en plena campaña de Andrei Jdanov, comisario de cultura de Stalin, contra el "formalismo burgués". La idea de escribir esta partitura, destinada a David Oistrakh, amigo y compañero de Shostakovitch en innumerables veladas camerísticas, había surgido pocos meses después de su colaboración conjunta en el festival Primavera de Praga de 1947. Pero las presiones ideológicas de los burócratas soviéticos y el clima de sospecha y de amenaza que rodeó al autor, similar al desencadenado en 1936 tras la condena pública a su ópera *Lady Macbeth del distrito de Mzensk,* forzaron a retrasar su estreno hasta finales de 1955.

Durante el otoño de 1947, mientras trabajaba en el concierto, Shostakovitch tuvo conocimiento de que la cantata patriótica que acababa de escribir para conmemorar el trigésimo aniversario de la Revolución de Octubre (el hoy olvidado *Poema de la Patria, op. 74*) era rechazada. Un hecho inquietante que serviría como prólogo a la campaña de intimidación y represión llevada a cabo por Jdanov a comienzos del año siguiente, cuando Shostakovitch, Prokofiev, Miaskovsky y Khachaturian, por citar sólo a cuatro de los compositores más significativos de la época, fueron condenados por incurrir en "perversiones formalistas y tendencias antidemocráticas ajenas al pueblo soviético". Los reproches, dirigidos especialmente

izanez gero, arrazoi ideologikoengatik zentsuratzeko errazagoak gertatzen ziren oinarri literarioko generoetara bideratu nahi baitzituen konpositoreak.

Jdanov kondenatua izan ostean, Shostakovitch-en obrak bateraezineko bi norabide hartu zituen: batetik, garaiko zentsuratzaileentzat ortodoxia akatsgabeko filmatarako musika eta obra koralak; bestetik, bere gura barne barnekoenak asetzen zituzten konposizioak, argitara emateko garai hobeen zain egon beharko zutenak, alegia. *Biolinerako 1. kontzertua* –zenbait hari-kuarteto edo 1956. urtera arte estreinatu ez zen arren garai berekoa zen *Judutar herri poesiaren inguruan* ahots-zikloa bezala-azken horien artean kokatzen da.

Zenbaitetan inprobisazio rapsodikoaren itxura hartzen duen partitura labirintikoa, bere egitura bereziak tamaina ezberdineko lau mugimendu biltzen ditu. Hasierako *Moderato* luzea, Feuchtner-ek "gauaren iluntasunean idatzia, bakardade sakona islatzen duen kantua" bezala definitua, malenkonia ziztakorra nagusi duen *Nocturnoa* da. Honetan amets-segida misteriotsuak errezitatibo itzaltsuen formako meditazioak eta bakarlariaren monologo elegiakoak tartekatzen dira. Sarkasmoa eta fantasmagoriak –Mahler-en kutsua duten ezaugarriak biak- bat egiten dute *Scherzoan*: deabruazko dantza asaldatzaile eta aztoratua, barra-barra jariatzen den energia erritmikoduna, biolinaren dardara karrankariz josia. Erabateko kontrastean, hirugarren mugimenduak *Passacaglia* erraldoi baten itxura hartzen du; konpositorearen egitura gogokoena, bere obra askotan agertzen da: *Lady Macbeth Mzensk distritoan* obrako interludioan hilketaren ondoren, *Zortzigarren Sinfoniako Largoan edo Biolin eta pianorako sonatan*, besteak beste. Segida, egileak idatzitakoen artean lazgarrienetako bat, izaera hieratikodun *Andante* prozesional

hacia las obras instrumentales abstractas de grandes dimensiones, desvelaban los deseos del Partido por orientar a los compositores hacia géneros con soporte literario (coros, cantatas, óperas), más fáciles de controlar y, en su caso, censurar por motivos ideológicos.

Tras la condena de Jdanov, la obra de creación de Shostakovitch se bifurcó en dos direcciones irreconciliables: de un lado, músicas fílmicas y páginas corales de ortodoxia irreprochable para los censores de turno; del otro, composiciones que satisfacían sus aspiraciones más íntimas pero debían aguardar tiempos mejores para ver la luz pública. El *Concierto para violín nº 1* -como ciertos cuartetos de cuerda o el coetáneo ciclo vocal *De la poesía popular judía*, no estrenado hasta 1956- pertenece a esta última categoría.

Partitura laberíntica que en ocasiones adquiere la apariencia de una improvisación rapsódica, su original estructura acoge cuatro movimientos de dimensiones desiguales. El extenso *Moderato* inicial, definido por Feuchtner como "canto escrito en la oscuridad de la noche que denota una profunda soledad", es un Nocturno dominado por una punzante melancolía en el que se alternan misteriosas secuencias ensoñadoras, meditaciones en forma de sombríos recitativos y elegíacos monólogos del solista. Sarcasmo y fantasmagoría -rasgos ambos muy mahlerianos- se dan cita en el *Scherzo*, un corrosivo Allegro a modo de danza diabólica agitada y convulsa, de torrencial energía rítmica, salpicada de chirriantes trepidaciones del violín. En abierto contraste, el tercer movimiento adopta la forma de una monumental *Passacaglia*, estructura favorita del músico que aparece en muchas de sus obras: en el interludio tras el asesinato en *Lady Macbeth del distrito de Mzensk*, en el *Largo de la Octava Sinfonía*, en el *Largo de la Sonata para*

tragikoa da, etenik gabe amaierako *Allegro con brio*-arekin bat egiten duen bakarlariaren kadentzia luzean amaitzen den hileta-auhena. Shostakovitchek *Passacaglia* bat kokatua zuen jada azkenaurreko tokian *3. Hari-kuartetoan* eta ondoren ere berriro egingo zuen, *Seigarren eta Hamargarren* kuartetoetan. Kasu honetan, rondó indartsu bat da eta bere izenburuak (*Burlesca*), Mahleriar kutsua duenak, gaurkotutako *trepak* moduko bat ezkutatzen du, birtuosismo dirdiratsuko dantza errusiarra; "festa herrikoi alaiaren giroa", Oistrakh-en hitzetan. Eutsi ezineko motrizitateduna, aldi berean grotesko eta pozez betea, amaiera aldera mugimenduak *Passacaglia*ren tema berreskuratzen du –tronpan eta biolinean ondoren-, koda bizi-bizian nagusi izango dena.

1955. urteko urriaren 29an, Stalin hil eta handik bi urte eta erdira, David Oistrakh-ek estreinatu zuen kontzertua, Mravinsky-k zuzendutako Leningradeko Orkestra Filarmonikoarekin batera. Konpositoreak erabateko arrakasta lortu zuen kontzertu honekin. Bi hilabete beranduago, biolinjotzaileak Estatu Batuetan barrena egindako estreinako bira erabili zuen obra Mendebaldean ezagutzera emateko, Mitropoulos-en zuzendaritzapean eta New Yorkeko Orkestra Filarmonikoarekin.

*violín y piano* entre otras. La secuencia, una de las más desgarradoras de su autor, es un trágico *Andante* procesional de tono hierático, un lamento fúnebre que desemboca en una larga cadencia del solista encadenada sin interrupción al *Allegro con brio* final. Shostakovitch ya había situado una *Passacaglia* en penúltimo lugar en su Cuarteto de cuerda nº 3 y lo repetiría en los cuartetos *Sexto y Décimo*. Se trata, en este caso, de un vigoroso rondó cuyo título (*Burlesca*), de resonancias mahlerianas, esconde una suerte de actualizado *trepak*, danza folclórica rusa, de fulgurante virtuosismo: "Un ambiente de alegre fiesta popular", en palabras de Oistrakh. De irresistible motricidad, a la vez grotesca y jubilosa, el movimiento retoma hacia el final -en la trompa y después en el violín- el tema de la *Passacaglia* que habrá de dominar la trepidante coda.

El 29 de octubre de 1955, dos años y medio después de la muerte de Stalin, David Oistrakh estrenaba la obra con Mravinsky al frente de la Filarmónica de Leningrado. El concierto representó un verdadero triunfo para el compositor. Dos meses más tarde, el violinista aprovechaba su primera gira por Estados Unidos para dar a conocer la obra en Occidente, esta vez con Mitropoulos y la Filarmónica de Nueva York.

# 2.
# Sinfonía nº1 en sol menor

**Vassili Kalinnikov -** 13 de enero de 1866, Voina, Rusia – 11 de enero de 1901, Yalta, Rusia

Lyadov, Taneyev, Lyapunov, Arensky, Catoire edo Grechaninov bezala, Vassili Kalinnikov XIX. mendearen lehenbiziko erdian jaiotako errusiar konpositore ugarietako bat dugu, batzuk besteak baino akademikoagoak, epigonalagoak, baina inoiz ez, bere obra onenetan behintzat, interesik gabeak. Baina hauen oroitzapena aurreko belaunaldiko kide nabarmenen ospeak estalirik geratu da, Borodin, Balakirev, Mussorgsky, Tchaikovsky eta Rimsky-Korsakov-en ospeak estalirik. Polizia zaristaren ofizial apal baten seme, Kalinnikov Voina-n jaio zen

Como Lyadov, Taneyev, Lyapunov, Arensky, Catoire o Grechaninov, Vassili Kalinnikov pertenece a esa extensa nómina de compositores rusos -más o menos académicos, más o menos epigonales pero nunca, al menos en sus mejores obras, carentes de interés- nacidos en la segunda mitad del XIX, cuyo recuerdo ha quedado sepultado por la celebridad de los más destacados miembros de la generación anterior: Borodin, Balakirev, Mussorgsky, Tchaikovsky y Rimsky-Korsakov. Hijo de un modesto oficial de la policía zarista, Kalinnikov nació en Voina en 1866. Formado en el seminario de Orel,

1866. urtean. Orel-ko apaizgaitegian hezia, non abesbatzaren zuzendari izateara heldu zen, 1884an Moskura aldatu zen Kontserbatorioan ikasteko, baina behar ekonomikoek hura uztera bultzatu zuten urtebete beranduago. Orduan Elkarte Filarmonikoaren Eskolan fagota eta konposizioa ikasi zituen.

Kalinnikovek Moskuko antzoki ezberdinetan fagot-, timbal- eta biolin-jotzaile gisa lan eginez atera zuen bizimodua. Diru-arazoek eragina izan zuten haurtzaroan jasandako gabeziek jada ahuldutako musikari gaztearen osasunarengan. 1892.ean eta Tchaikovskyren laguntzari esker, Kalinnikov Moskuko Mali Antzokiko orkestraren zuzendari izendatu zuten eta hurrengo urtean Italiar Antzokiko zuzendari. Baina tuberkulosiak dimititzera behartu eta Crimeako hegoaldera aldatu zen, klima onberago baten bila. Azken urteak Yalta-n eman zituen eta bertan konposatu zituen bere bi sinfonia bakarrak. Hirian iragaitzaz zela, Rachmaninov-ek bere alde egin zuen bere editore zen Jurgenson-en aurrean honek, Kalinnikovi bere hiru abestirengatik 120 errublo eskaini zizkionak, *Bigarren Sinfonia la maiorrean* obraren orkestra-partitura eta bi pianorako murrizketa argitaratu zitzan. Sinfonia hau Kiev-en estreinatu zen 1898 urtean, *Lehenbizikoa* baino urtebete beranduago. Rachmaninovek lehengoaren pianorako moldaketa bat argitaratzea ere iradoki zion Jurgensoni, baina Kalinnikov ez zen honek eragindako etekinez gozatzeko behar adina bizi: 1901. urtean hil zen behar baino lehen, hogeita hamabost urte bete baino egun gutxi batzuk lehenago.

Ondorioz, bere katalogoa laburra da. Aipatu bi sinfoniez gain, Kalinnikoven ondare sinfonikoan partitura labur batzuk besterik ez ditugu topatuko, esaterako *Ninfak* poema sinfonikoa (1889), Turgeniev oinarri harturik, *Serenata* bat (1891), *Bilina* obertura (1893), bi *Intermezzo* (1896, 1897) eta nabarmenena *Zedroa eta palmondoa* poema sinfonikoa, Heine oinarri harturik. Gainerakoan, ondarea hainbat kantu eta pianorako piezek (*Scherzo, Kantu tristea, Vals, Nocturno, Elegia*), izaera erlijiosoko lanek, *San Juan Damasceno* kantatak (1890), Alexei Tolstoi *Zar Boris* obrarako musika inzidentalak eta

cuyo coro llegó a dirigir, se trasladó a Moscú en 1884 para estudiar en el Conservatorio pero las necesidades económicas le forzaron a abandonarlo un año después. Estudia entonces en la Escuela de la Sociedad Filarmónica donde recibe lecciones de fagot y de composición.

Para ganarse la vida, Kalinnikov trabaja en Moscú como fagotista, timbalero y violinista en orquestas de diferentes teatros. Las dificultades pecuniarias repercuten en la salud del joven músico, ya disminuida por las privaciones sufridas durante su infancia. En 1892 y gracias al apoyo de Tchaikovsky, Kalinnikov es nombrado director de orquesta en el Teatro Mali de Moscú, ocupando al año siguiente idéntico cargo en el Teatro Italiano. Pero la tuberculosis le obliga a dimitir y a instalarse en el sur de Crimea, a la busca de un clima más benigno. Sus últimos años transcurren en Yalta, donde compone sus dos únicas sinfonías. De paso por la ciudad, Rachmaninov intercede para que su editor Jurgenson -que ofrece a Kalinnikov 120 rublos por tres de sus canciones- publique la partitura orquestal y una reducción para dos pianos de la *Segunda Sinfonía en la mayor*, estrenada en Kiev en 1898, un año después de la *Primera*. Rachmaninov sugiere también a Jurgenson la publicación de un arreglo para piano de ésta última, aunque Kalinnikov no viviría para disfrutar de sus beneficios: fallece prematuramente en 1901, pocos días antes de cumplir treinta y cinco años.

En consecuencia su catálogo es reducido. Además de las dos sinfonías ya mencionadas, el legado orquestal de Kalinnikov encierra un puñado de páginas breves -el poema sinfónico *Las ninfas* (1889) sobre Turgeniev, una *Serenata* (1891), la obertura *Bilina* (1893), dos *Intermezzos* (1896, 1897)- entre las que destaca el poema sinfónico *El cedro y la palmera* (1898), inspirado en Heine. El resto se resume en diversas canciones y piezas pianísticas (*Scherzo, Canción triste, Vals, Nocturno, Elegía*), páginas corales de carácter religioso, la cantata *San Juan Damasceno* (1890), la música incidental para *Zar Boris* (1899) de Alexei Tostoy y algunos números de la ópera inconclusa *El año 1812* (1900).

amaitu gabeko *1812 urtea* operarako hainbat zenbakik (1900) osotzen dute.

1894 eta 1895. urte bitartean konposatua, *1. Sinfonia sol minorrean* da, zalantzarik gabe, Kalinnikoven lanik ezagunena. Izaera errusiar peto-petoa duen oinarrizko motibo ahaztezina nagusi dela, hasierako *Allegro moderato* luzea musikariak orkestraziorako zuen gaitasun nabarmena erakusten du. Bere eraikuntzan ematen diren errepikapenak medio, mugimenduak kritika bortitzak jaso zituen Rimsky-Korsakovengandik eta honek gutunen bitarteko polemika piztu zuen sinfoniaren hartzaile eta ikasle zenetik Kalinnikoven laguna zen Simon Kruglikovekin. Tchaikovskyren kutsu nabaria zuen lirismo melodikoaz jantzia, bigarren mugimendua (*Andante commodamente*) ia irreala den gaugiroan murgildurik dagoela dirudi. Izan ere, egileak etorria gau batean lo hartu ezinik zegoela iritsi zitzaiola adierazi zuen. Oboe solo eder batek ematen dio hasiera klimax dramatiko hunkigarri batera helduko den erdiko atal aztoratuagoari. Azkenengo konpasak, instrumentazio fin batez zizelkatutakoak, hasierako giro lasaia berreskuratzen dute. Scherzo oldartsuak, *Allegro non troppo* nabarmena, Borodinen kutsua berreskuratzen du. Honen hasiera eta amaierako atal bizien umore herrikoiak malenkoniaz betetako erdiko trioa biltzen du. Diskurtso boteretsu zein koloretsuak, hau ere borodiar tankerako hats epikoaz jantzia, amaierako *Allegro moderato*-a pizten du. Honetan Kalinnikovek sinfoniaren hasierako konpasak eta aurreko mugimenduetako oinarrizko motiboak aipatzen ditu.

Kalinnikoven *1. Sinfonia sol minorrean* Kiev-en estreinatu zen 1897. urteko otsailaren 8an, Alexander Vinogradsky-ren zuzendaritzapean, Errusiar Musika Elkarteak antolatutako kontzertu batean. Gau hartan izandako arrakasta itzela, handik gutxira Mosku, Viena eta Berlinen izandakoaren parekoa, ez zen zikloa itxiko zuen bigarren sinfoniarekin errepikatu.

Compuesta entre 1894 y 1895, la *Sinfonía nº 1 en sol menor* es, sin duda, la producción más célebre de su autor. Dominado por un inolvidable motivo principal de carácter netamente ruso, el amplio *Allegro moderato* inicial revela el notable talento orquestador del músico. No exento de ciertas reiteraciones en su construcción, el movimiento suscitó severas críticas de Rimsky-Korsakov, lo que provocó una polémica epistolar con Simon Kruglikov, dedicatario de la obra y amigo de Kalinnikov desde sus años estudiantiles. Provisto de un lirismo melódico de clara impronta tchaikovskyana, el segundo movimiento (*Andante commodamente*) parece sumido en un clima nocturno casi irreal. No en vano, su autor declaró que la inspiración había surgido en el transcurso de una noche de insomnio. Un bello solo de oboe inicia una sección central más agitada que alcanza un emotivo clímax dramático. Los últimos compases, finamente cincelados por una delicada instrumentación, recuperan la sosegada atmósfera del comienzo. El impulsivo scherzo, marcado *Allegro non troppo*, recupera en su transcurso la huella de Borodin. El humor popular de sus animados episodios extremos enmarca un trío central preñado de melancolía. Un discurso poderoso y coloreado, marcado igualmente por un aliento épico de signo borodiniano, anima el *Allegro moderato* final, en el que su autor cita los primares compases de la obra y los temas principales de los movimientos precedentes.

La *Sinfonía nº 1 en sol menor* de Kalinnikov se estrenó en Kiev, el 8 de febrero de 1897, dirigida por Alexander Vinogradsky durante un concierto de la Sociedad de Música Rusa. El inmenso éxito de aquella velada, confirmado poco después en sucesivas interpretaciones en Moscú, Viena y Berlín, no se repetiría con la segunda y última del ciclo.

## Musika argudio
## La música como pretexto

“Musika jada ez da helburu hutsa, borrokarako benetako tresna baizik.

La música ya no es un fin en sí mismo, sino un verdadero instrumento para la lucha.”

**D. Shostakovitch**

“Musikagilea hiltzean, Jurgenson-ek diru kopuru handia eskaini zion haren alargunari honek gordetzen zituen eskuizkribuengatik. Kalinnikov-en heriotzak bere obren balioa hamarkoiztu egin zuela gaineratu zuen gustu txarrez.

A la muerte del músico, Jurgenson ofreció una gran suma a su viuda por los manuscritos que tenía en su poder, teniendo el mal gusto de añadir que la muerte de Kalinnikov había multiplicado por diez el valor de sus obras.”

**F. Castello**

## Gure iradokizun diskografikoa
## Nuestra sugerencia discográfica

**D. Shostakovitch:**
**Concierto para violín nº1**

David Oistrakh, biolina/violín.

Orquesta Filarmónica de Nueva York.

Zuzendaria/Director: Dimitri Mitropoulos.

Sony, 1956.

**V. Kalinnikov:**
**Sinfonía nº 1**

Orquesta Sinfónica de la URSS.

Zuzendaria/Director: Evgeni Svetlanov.

CDK Music, 1975.

# Andrey Boreyko

**zuzendaria**
director



Andrey Boreyko Euskadiko Orkestraren Zuzendari Printzipal Gonbidatua da 2009/2010 denboraldiaz geroztik. Düsseldorfer Symphoniker-en musika-zuzendari nagusia eta Stuttgart Radio Symphony Orchestra-ren (SWR) zuzendari gonbidatu printzipala da. Gainera, Belgikako Orkestra Nazionaleko zuzendari titular izango da 2012ko irailetik aurrera. Berner Symphonie-Orchester, Jenaer Philharmonie, Hamburger Symphoniker, Winnipeg Symphoniker Orchestra taldeen zuzendari titularra izan da eta Vancouver Symphony orkestraren zuzendari printzipal gonbidatua. Halaber, Jenaer Philharmonie orkestrako ohorezko zuzendaria da. Andrey Boreykok nazioarte mailako orkestra gailenenak zuzendu ditu, horien artean Berliner Philharmoniker, Münchner Philharmoniker, Sächsische Staatskapelle Dresden, Gewandhausorchester Leipzig, Errusiako Nazionala, Royal Concertgebouw, Rotterdamgo Filarmonikoa, Orchestra Sinfonica Nazionale della RAI, Scala, Wiener Symphoniker, London Symphony Orchestra, The Philharmonia Orchestra, BBC, Radio France, New York Philharmonic eta Los Angeleseko Filarmonikoak eta Boston, Chicago, Cleveland eta Philadelphiako orkestrak.

Andrey Boreyko es Director Principal Invitado de la Orquesta de Euskadi desde la temporada 2009/2010. Es además director musical general de la Düsseldorfer Symphoniker y principal director invitado de la Stuttgart Radio Symphony Orchestra (SWR). Recientemente nombrado director titular de la Orquesta Nacional de Bélgica, desempeñará este cargo a partir de septiembre de 2012. Ha sido director titular de la Berner Symphoniorchester, Jenaer Philharmonie, de la que es director honorario, Hamburger Symphoniker y de la Winnipeg Symphony Orchestra, así como director principal invitado de la Vancouver Symphony. Andrey Boreyko ha dirigido la mayoría de las orquestas más importantes del panorama internacional, como la Berliner Philharmoniker, Münchner Philharmoniker, Sächsische Staatskapelle Dresden, Gewandhausorchester Leipzig, Nacional de Rusia, Royal Concertgebouw, Filarmónica de Rotterdam, Orchestra Sinfonica Nazionale della RAI, Scala, Wiener Symphoniker, London Symphony Orchestra, The Philharmonia Orchestra, BBC, Filarmónicas de Radio France, Nueva York y Los Angeles y las orquestas de Boston, Chicago, Cleveland y Philadelphia.

# Julian Rachlin

**biolina**
violín



1974.ean Lituanian jaioa, 1978an Julian Rachlin Austriara aldatu zen. Boris Kuschnir-en ikasle izan zen Vienako Kontserbatorioan eta Pinchas Zukerman-ek eskolak eman zizkion. Ashkenazy, Blomstedt, Chung, Haitink, Jansons, Levine, Maazel, Marriner, Mehta, Muti, Previn, Salonen edo Sawallisch bezalako maisuen zuzendaritzapean aritu da eta naizoarte mailako “Accademia Musicale Chigiana” preziatua merezi izan du. 1999ko irailatik Vienako Kontserbatorioko irakaslea da. 2000. urtean biola jotzeari ekin zion eta ordutik instrumentu honi eskainitako errepertorioa lantzen du bere kontzertuetan. Ganbera musikari gisa, Itamar Golan pianojotzailearekin batera aritzen da. Azken bederatzi urteetan musika jaialdi bat antolatu du Dubrovnik-en. Rachlin-ek « ex Liebig » Stradivari (1740) biolina jotzen du, Angelika Prokopp Fundazioak utzia. Sony, Warner, Deutsche Grammophon eta Onyx diskoetxeekin egin ditu grabaketak.

Nacido en Lituania en 1974, Julian Rachlin emigró a Austria en 1978. Estudió con Boris Kuschnir en el Conservatorio de Viena y recibió clases particulares de Pinchas Zukerman. Ha actuado junto a directores como Ashkenazy, Blomstedt, Chung, Haitink, Jansons, Levine, Maazel, Marriner, Mehta, Muti, Previn, Salonen y Sawallisch. Ha recibido el codiciado Premio Internacional “Accademia Musicale Chigiana”. Desde septiembre de 1999 es miembro del equipo docente del Conservatorio de Viena. En 2000 empezó a tocar la viola y desde entonces incluye repertorio para este instrumento en sus actuaciones. Como músico de cámara actúa habitualmente con el pianista Itamar Golan. Durante los últimos nueve años, ha establecido su propio festival de música de cámara en Dubrovnik. Rachlin toca el “ex Liebig”  Stradivari (1704), prestado por la Fundación Angelika Prokopp. Ha grabado para Sony, Warner, DG y Onyx.

Gure Orkestraren jarduerari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero gurekin harremanetan jar zaitezke / Si desea conocer más detalles acerca de la nueva programación de nuestra Orquesta contacte con nosotros.

*i*

**943 01 32 32** | **www.euskadikoorkestra.es**

Miramon Pasealekua, 124 • 20014 Donostia-San Sebastián

## Hurrengo abonu kontzertua
## Próximo concierto de abono

Azaroak
15-17
Noviembre

**Gilbert Varga,**
zuzendaria / director

**Arcadi Volodos**
pianoa / piano

**P.I. Tchaikovsky**
Concierto para piano y orquesta nº1

**Z. Kodaly**
Danzas de Galanta

**R. Strauss**
Don Juan

## Miramongo Matinéeak
## Matinées de Miramón

Azaroak
20
Noviembre

**Euskadiko Orkestrako Biola Taldea**

Obras de R. Schumann, Z. Kodaly, L.V. Beethoven, A. Stradella, J. Pachelbel, L. Bernstein, A. Piazzolla-ren lanak

**Sarreren salmenta**

**Venta de entradas**

kutxa

**SERVIKUTXA**

943 00 12 00

www.kutxa.net

Taquilla **KURSAAL leihatila**
Días de actuación de la Fundación Kursaal

**MATINÉES: Taquilla Sede**
Día del concierto a partir de las 10:30h.

**www.euskadikoorkestra.es**

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa Orquesta Sinfónica de Euskadi

EUSKADIKO
ORKESTRA